
EUSKADIKO KIROL PORTUAK-EKO ZUZENDARIAREN 2024KO URTARRILAREN 29KO EBAZPENA, LEKEITIOKO PORTUAREN BARRUAN, ZENBAIT AMARRALEKUTAN, PARKEKO PANTALANEAN ETA BUIEN ALDEAN, ALDAKETAK EGITEA ONARTZEKO ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEKO

LEHENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 3.f artikulua honela definitzen du Portuko Administrazioa: “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta zuzenbide pribatuko Euskadiko Kirol Portuak erakunde publikoa, lege honen bidez esleitutako eskumenak eta eginkizunak betetzen baitituzte”. Euskadiko Kirol Portuak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako erakunde publikoa izanda.

Bestalde, maiatzaren 12ko 58/2020 Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Kirol Portuak erakundearen estatutuen 6. artikulua ezartzen du Euskadiko Kirol Portuak erakundearen eginkizuna dela, besteak beste, **atxikitako portu-azpiegiturak administratzea eta portu-zerbitzuak ematea.**

BIGARRENA.- Aipatutako 2/2018 Legearen 24. artikulua Euskadiko Kirol Portuen xedea ezartzen du, eta jasotzen du, besteak beste, xede horren helburua **Jaurlaritzak esleitzen dizkion erabilera nautikoko eta aisialdiko portuen eta horiei lotutako erabilera eremuen kudeaketa integrala egitea** dela. Ildo beretik doa maiatzaren 12ko 58/2020 Dekretuaren bidez onartutako estatutuen 5. artikulua.

HIRUGARRENA.- Martxoaren 8ko 33/2022 Dekretuak, Euskadiko Kirol Portuak erakundeari bere eginkizunak garatzeko behar dituen baliabideak atxikitzen dizkionak, hau ezartzen du lehenengo artikuluan: “Euskadiko Kirol Portuak erakundeari esleitzen zaio Lekeitioko kirol-portuan kirol-portuko zerbitzu publikoaren kudeaketa.

Horregatik, beraz, Euskadiko Kirol Portuak erakundeari dagokio Lekeitioko Kirol Portuari dagokion portuko jabari publikoa kudeatzea, eta, horrekin batera, Lekeitioko portuan aisialdirako ontzientzako 7. zerrendako amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedurarako deialdia egitea. Prozedura hori Euskadiko Kirol Portuak-eko zuzendariaren 2022ko maiatzaren 2ko Ebazpenaren bidez hasi zen (2022ko maiatzaren 20ko EHAA) eta Euskadiko Kirol Portuak-eko zuzendariaren 2022ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez ebatzi zen (2022ko uztailaren 29ko EHAA).

LAUGARRENA.- Deialdia ebatzi eta amarralekuak esleitu zirenetik ia urte eta erdi igaro ondoren, Lekeitioko portuko ustiapen-arduradunak txostena egin du 2023ko abenduaren 13an, portuan amarralekua duten ontzien parte batek bizi duen egoera prekarioa zehaztuz. Hori arrisku larria da erabiltzaileen integritaterako, eta egoera konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen hainbat jarduketa proposatu ditu. (Txosten hori ebazpen honen eranskin gisa erantsi da).

BOSGARRENA.- Txosten horretan adierazten da parkeko pantalaneko amarralekuen eta buien amarragunearen inguruko erabiltzaileek arazo larria dutela, leku gutxi dagoelako pantalaneko fingerren eta buien artean. Horren ondorioz, ezin da maniobrarik egin behar den segurtasunarekin, eta arrisku handia eta benetakoa sortzen du ontzien (eta pertsonen) segurtasunerako, haien artean kolpatu egiten baitira, lekurik ez dagoelako.

SEIGARRENA.- Parkeko pantalanari dagokionez, arduradun teknikoak bi jarduketa proposatu ditu bere txostenean, soluzio bideragarri eta beharrezko gisa:

1.- Gaur egun libre dauden bi amarraleku (P20 eta P25) kentzea eta irabazitako espazioa P11tik P36ra bitarteko plazen artean banatzea, plaza bakoitzaren zabalera 15 cm inguru handituz.

2.- P01 plazaren muturreko fingerra 40 cm. mugitzea Kontramaisu kairantz, P01 eta P04 plazen maniobra-tarteari 15 cm inguru emanaz.

ZAZPIGARRENA.- Buietako amarralekuei dagokienez, Teknikariak proposatutako soluzioa buien arteko distantzia 10 metrora handitzea izango litzateke (gaur egun 8 metro dituzte).

ZORTZIGARRENA.- Ondorioz, txostenak jasotzen duenez, deskribatutako jarduketak behar-beharrezkoak dira portuak behar bezala eta segurtasunez funtziona dezan, teknikoki guztiz bideragarriak dira eta ez diete hirugarrenei eragiten, eta jarduketa horiek egitea onartzeko behar den prozedura hasteko eskatzen da.

Horiek horrela, Zuzendaritza honek Euskadiko Kirol Portuak erakundearen estatutuetako 15.2 artikuluan esleituta dituen ahalmenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Espedienteari hasiera ematea, hala badagokio, Parkeko pantalaneko amarralekuetan eta buietarako amarralekuetan aldaketak egitea onartzeko, Lekeitioko portuko ustiapen-arduradunak 2023ko abenduaren 13an emandako txostenean zehaztutako baldintzetan. Txosten hori ebazpen honen eranskin gisa dago jasota.

Proposatutako jarduketak:

1.- Parkeko pantalanari dagokionez: Gaur egun libre dauden bi amarraleku (P20 eta P25) kentzea eta irabazitako espazioa P11tik P36ra bitarteko plazen artean banatzea, plaza bakoitzaren zabalera 15 cm inguru handituz. Gainera, P01 plazaren muturreko fingerra 40 cm. mugitzea Kontramaisu kairantz, P01 eta P04 plazen maniobra-tarteari 15 cm inguru emanaz.

2.- Buietako amarralekuei dagokienez, jarduketa buien arteko distantzia 10 metrora handitzea izango litzateke (gaur egun 8 metro dituzte).

BIGARRENA.- Ebazpen hau eta erantsitako txostena jakinaraztea ebazpen honek uki ditzakeen eskubide eta interesak dituzten interesdun guztiei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Eta, gainera, Lege horren 45. artikulua aplikatuz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Lekeitioko portuko iragarki-oholean argitaratuko dela iragartzea.

HIRUGARRENA.- HAMABOST egun balioduneko epea ematea, jakinarazpen pertsonala egin eta Ebazpen hau EHAAAn iragarri eta portuko iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bertan xedatutakoaren eraginpean egon daitezkeen eta eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsona guztiek alegazioak egin edo/eta egoki irizitako dokumentu eta justifikazioak aurkez ditzaten. Horretarako, info@ekpsa.eus helbide elektronikora bidali ahal izango dute, edo bestela, APAPBren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan horretarako adierazitako legezko bideetako edozein erabiliz.

Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 29an

Sin.: EDURNE EGAÑA MANTEROLA

Euskadiko Kirol Portuak-eko Zuzendaria

ERANSKINA, LEKEITIOKO PORTUAREN BARRUAN, ZENBAIT AMARRALEKUTAN, PARKEKO PANTALANEAN ETA BUIEN ALDEAN, ALDAKETAK EGITEA ONARTZEKO ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEKO EUSKADIKO KIROL PORTUAK-EKO ZUZENDARIAREN 2024KO URTARRILAREN 24KO EBAZPENARI

**PARKEKO ETA BUIEN EREMUKO PANTALANETAKO ARAZOEI BURUZKO
TXOSTEN TEKNIKO ETA SOLUZIOEN PROPOSAMENA**

Lekeitioko portuan kirol-dartsena berrantolatu da, pantalan flotatzaileak jarritz. Berrantolaketa-lanak amaitu eta gero, amarralekuak banatzeko deialdi publikoa hasi da. Prozesua amaitu eta Lekeitioko portuan 7. zerrendako aisia ontziei eta, kategoria baliokidean sailkatutako beste herrialde batzuetako ontziei, amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko deialdi publikoa ebatzi duen Euskadiko Kirol Portuak-eko Zuzendariaren 2022ko uztailaren 7ko EBAZPENA argitaratu ondoren, emakidaren esleipendunek plaza horiek okupatu dituzte.

Plaza horien esleipendun diren erabiltzaileek amarralekuak bete ondoren, horietako batzuen diseinuan akatsak antzeman dira, izan ere, **ezin da behar bezala maniobratu edo plaza baldintza seguruetan bete.**

Ondoren, dagoen arazoa laburbiltzen da, soluzioak honela planteatuz:

- Buiak

Buien arteko distantzia (8 m) ez da nahikoa; izan ere, itsasontziak egoera prekarioan daude lotuta, eta horrek arriskuan jartzen du buien eta erabiltzaileen integritatea. Ikus II. eranskina.

Soluzio bideragarri gisa, buien arteko distantzia 10 m-ra handitzea proposatzen da, 50 m-ko bi ainguratze-lerro bikoitz sortuz.

- Parkeko pantalana

37 plaza eskaini dira, fingerren artean 3,70 m-ko zabalera errearekin, egindako obren barruan pantalana birgaitu aurretik zegoenaren baliokidea. Ontzi bakoitzarentzako zabalera erabilgarria (1,85 m) ez da nahikoa; izan ere, ontzi askok 1,80 metro inguruko zabalera dute, eta horrek arrisku egoera edo amarratzea ezinezkoa izatea eragiten du. Ikus I. eranskina.

Gaur egun, bi amarraleku libre daude kai horretan; beraz, bi plaza kentzea eta irabazitako lekua P-11 eta P-36 plazen artean banatzea proposatzen da.

Gainera, P-01 plazaren muturreko fingerra Kontramaisu kaira eramatea proposatzen da, 0,40 metroko distantziara. Horrek, P-01 eta P-04 plazei 15 cm-ko maniobra-tartea ematea ahalbidetzen du.

Proposatutako ekintzen xehetasun teknikoak

- Parkeko pantalana

Parkeko pantalanean 37 plaza eskaini dira, fingerren artean 370 cm-ko zabalera errearekin, 180 cm-ko

edo gutxiagoko zabalera duten ontzientzako tokiak eskainiz. Egiaztatu da, praktikan, fingerren arteko zabalera hori ez dela nahikoa 180 cm-ko zabalera duten ontziak hartzeko, eta, ondorioz, erabiltzaileak ezin direla porturatu eta portutik atera, eta, gainera, ezin dutela euren ontzia alboko ontziaren edo fingerraren kolpeetatik babestu, ezinezkoa delako existitzen ez diren espazio horietan defentsak sartzea. Bere plazan ontzi bakar bat amarratuta egotera, bigarren ontzia aurrekoaren ondora amarratzera hurbiltzen denean, maniobrak egiteko leku nahikorik barik, kolpeak ematen dizkie bere ontziari eta albokoari. Horrela, kalte materialak eragiten zaizkie bi ontziei, eta espazio estuan harrapatuta geratzeko edo uretara erortzeko arriskua sortzen da pertsonarentzat.

Txosten hau egin den egunean, bi plaza libre daude kai honetan, hauek, hain zuzen ere:

- 20. G.: Amarralekua aldatzeko eskaera onartu ondoren libre geratu da.
- 25. G.: libre geratu da, okupatzen zuen ontziak bere borondatez baja eman diolako.

Horregatik guztiagatik, 400 cm irabazteko bi plaza kentzea proposatzen da. Espazio hori 25 plazen artean banatuko litzateke, plaza bakoitzaren benetako zabalera 15 cm inguru handitzeko, eta ontzi bakoitzari 20 cm-ko tartea emango litzaioke.

Gainera, lehenengo fingerra Kontramaisuko kaitik kai horretarantz mugituko litzateke, lehenengo lau plaza horien zabalera handituz. Lehenengo fingerra 40 cm inguru mugitu daiteke, eta, beraz, 15 cm inguru emango genizkieke lehenengo lau plazei.

Horrela, alde batetik, 25 leku ontzi bakoitzaren arteko 20 cm-ko maniobra-tartearekin geratuko lirateke, eta, bestetik, 4 leku ontzi bakoitzaren arteko 15 cm-ko maniobra-tartearekin, eta horien artean aldatu ezin daitezkeen 6 plaza. Hala ere, aldaketak egin dira sei leku horietan dauden ontziak modu seguruan egokitu ahal izateko. Ikus III. eranskina.

Une honetan ez dago eskaerarik itxaron-zerrendan. Beraz, bi plazak kentzeak ez du eraginik hirugarrenetan.

- Buiak

Buietan dauden ontziak egoera kaskarrean eta eskasean daude itsasontzien segurtasunari dagokionez, leku faltaren ondorioz elkarren kontra jotzen dutelako.

Ainguralekuak buien arteko distantzia teorikoa 8 metro ingurukoa duten baoak ditu. Bao horietan 7 metro arteko ontziak daude, eta horrek 0,5 metroko distantzia teorikoa uzten du branka bakoitzeko, eta beste horrenbeste buietarako popa bakoitzeko. Distantzia horiek aldatu egiten dira ontziak brankarantz eta poparantz mugiarazten dituen itsasaldiekin eta erresakarekin. Tarte txiki hori dutenez, ontziek elkarren kontra jotzen dute, eta kalte materialak eragiten zaizkie ontziei, bai eta kolpe horiek saihesten saiatzen direnean erabiltzaileak harrapatzeko edo uretara erortzeko arriskua ere. Ez dago maniobra-tarterik, maniobratzeko zailtasun handiak sortzen ditu, eta arriskuan jartzen ditu alboko ontziak eta erabiltzaileak, arestian deskribatutako arrazoi berberengatik.

Buien arteko tartea 10 metrora handitzea proposatzen da, ontziek modu seguruan amarratzeko nahikoa leku izan dezaten.

Ondorioak

Goian deskribatutako jarduketak **behar-beharrezkoak** dira portuak behar bezala eta segurtasunez

RES. 37/24/11/12

funtziona dezan. Ikuspegi teknikitik guztiz bideragarriak dira, ez dute eraginik hirugarrenetan, eta **ontzien eta erabiltzaileen integritatea arriskuan jartzen duen egoera ezegonkorrari erantzuten diote.**

Horregatik guztiagatik egin da txosten teknikoa, horretarako prozedura has dadila eskatuz.

Lekeition, 2023ko abenduaren 13an

Borja Villagrán


Lekeitioko portuko ustiapen-arduraduna



I. ERANSKINA: Parkeko kaiaren irudiak



RES. 37/24/11/12



II. ERANSKINA: buien irudiak



III. ERANSKINA: Parkeo kaiarako plano proposamena

